

Bizkaiko eta Gipuzkoako bertsolari gazteen txapelketak jokatuko dira gaur

Bihar Arabakoan txanda izango da, eta hilaren 9an, berriz, Iparraldekoena

Íñigo Olabarri / Bilbo

Euskal Herriko bertsolari gazteen txapelketak izango dira asteburuon protagonista. Bizkaiko eta Gipuzkoako finalak dira gaur, eta Arabakoa bihar. Iparraldekoa datorren astean jokatu da.

BIZKAIKO Ume eta Gazte-txuen Bertso Txapelketea 10:30etik aurrera jokatu da gaur goizean, Bilboko Indautxuako El Carmen aretoan. Hiru final izango ditu Bizkaiko Ume eta Gazte-txuen Bertso Txapelketeak: 14 urte artekoena, 15-16 urtekoena, eta 17-18 urtekoena.

Lehenengoan, Xabat Gallastegibetia, Amaia Uribe, Iasmina Gorroño, Jon Agirre, Gentzane Jimenez eta Ander Elortegi ariko dira. Bigarrenean, Jon Remente-ria, Oier Azula, Oihana Bartra eta Jurgi Garitagoitia. Hirugarrenean, Gaizka Amondarain, Xabier Paia, Igor Muniategi eta Iñaki Basterretxea.

Juanjo Respaldizak esan duenez, «maila oneko bertsolariak iritsi dira. Gazteenetan berriak sartu dira. Bilboko bertsolari bi ere badira, eta hori berri ona da».

Gipuzkoako Eskola Arteko Bertsolari Txapelketa ere gaur izango da, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan, arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Maila bi izango dira: 14 urte artekoena eta 15 urtetik 18ra



Gipuzkoako Eskola Arteko Bertsolari Txapelketara labekada berria iritsi da aurtun.

MIKEL MENDIZABAL

■ ■ ■ «Gipuzkoako txapelketan berezitasuna da labekada berri bat iritsi dela; maila orekatukoa»

JUANJO RESPALDIZA

■ ■ ■ «Maila ona izan da Bizkaiko txapelketan. Finalean Bilboko bi ere sartu dira; hori berri ona da»

nabarmendu du. «Lehenengo taldea adinez pasatu da, beste labekada bat etorri da. Ez da bertsolari bat nabarmen-tzen, maila orekatua dago».

Bihar Arabakoan txanda

Arabako finala bihar jokatu-ko da, Gasteizko Armentia ikastolan. Hamasei bertsola-rik kantatu dute, bi maila-tan banatuta. Txikien mailan Jagoba Apaolaza, Maite Celestino, Julen Bikendi, Markel Arriolabengoa, Maia-len Saenz de Bikuña Maialen Berasategi, Xabi Lasa, Maia-len Monte eta Jon Apodaka

Telletxea eta Lazkoz txapeldun Nafarroan

■ NAFARROAN eskola arteko kanporaketa maiatza-ren 20an egin zuten, Na-farroako bertso eskolek Elizondon egindako topa-keetan. Gainerako herrial-deetan bezala, bi mailatan banatuta aritu ziren ber-tsolariak. Ttikien mailan, 14 urte bitartekoenean, bi bertsolari baino ez ziren aritu, Egoitz Telletxea le-sakarra eta Unai Petri-re-na sunbeldarra. Telletxe-ak irabazi zuen. Bete be-harreko lana lau oinekin bertsoak osatzea izan zen. Handien mailan, berriz, zortzi bertsolari aritu zi-ren, bortz Iruñeko bertso eskolatik, bi Sakanatik eta bertze bat Berako ber-tso eskolatik. Eneko Laz-koz Sakanakoa atera zen garaile, eta bigarren tokia Mikel Azpirotz iruinse-me-arentzat izan zen. Bi ho-riek ordezkatu dute Na-farroa Euskal Herriko es-kola artekoan, azken orduko aldaketarik ez ba-da bederen. Horiak zortzi-ko nagusian, gaia emanda eta lau oinekin aritu ziren kantuan. Aurtengo eskola arteko konturik aipaga-rriena Iruñeko bertso es-kolatik bortz bertsolari fi-nalera heltzea izan da, za-lantzarik gabe.

ariko dira. Nagusien taldean taularatuko dira Iñaki Viñas-pre, Andere Arriolabengoa, Aratz Ortiz de Elgea, Manex Agirre, Maiteker Sasieta, Arait Garai, Naroa Sasieta, eta Lierni Altuna.

Iparraldeko bertsolari gaz-teen finala ekainaren 9an izango da, Makeako plazan.

AZPEITIA

Eskola Arteko 20. Bertsolari Txapelketa

Eguna: Ekainak 2 Lekua: Izarraitz Pilotalekua Ordua: 4etan



Azpeitiko Udala

“Azpeitia bertsolaritzaren kabia izan zen, da eta izango da” X. Lizaso